

Hasiera hartan hiru adar nagusi izan zituen protestantismoak: *Luteranismoa,*kalbinismoa eta zuinglianismoa; *anglikanismoaren eta protestantismoaren lotura era ezberdinez ulertu izan dute, horrek elementu "katoliko" gehienak gorde bait ditu, eta hainbat gauzatan katolizismotik hurbilago dago protestantismotik baino.

Hiru adarren artean badituzte hiru ezauzgarri nagusi: *Biblia dela egia errebelatua- ren iturri bakarra; fedez bakarrik zuzenes- ten edo zintzoerazten direla gizon-emakume bekatariak; fededun guztiak direla apaiz; apaizgo ministeriala ukatu egiten dute, be- raz.

Bestalde, Jainkoaren haraindikotasuna edo traszendentzia nabarmentzen dute; jato- rrizko bekatuaren ondorioak handitzen dituz- te, gizon-emakumeei onerako eta jainkoagana- tzeko ahalbidea ukatzeraino; Elizaren alder- di instituzionala, liturgikoa, eta sakramen- tuzkoa gutxiagotzat hartzen dituzte, Jain- koaren Hitzaren predikuari eta hori entzu- teari garrantzi berezia emanez.

Bibliaren adierazpen libreari eman zion bultzadagatik, protestantismoaren hasierako irakabidezko sistema zurrin hark gorabehera handiak eduki ditu ondoko mendeetan, batez ere XVIII. mendetik hasitako joera filosofiko-teologiko historizisten eta XIX. eta XX. mendeetako Bibliaren adierazpen liberalaren eraginez. Protestantismoaren eboluzio horretan eragin berezia izan duten izenetako batzuk hauek dira: F.D.E. Schleiermacher, A. Ritschl, A. Harnack, R. Bultmann, P. Tillich.

Korrante liberal horien kontrako erreak- zio teologiko indartsua eta eragin handikoa ekarri zuen mende honetan K. Barth kalbinis- taren teologia dialektikoak, eta beste era- tara W. Pannenberg-ek, J. Moltmann-ek; edota D. Bonhoeffer-ek.

Ik. Eskritura soila; Tradizioa; Justifika- zioa; Apaiza; Ministeritzak, Jatorrizko bekatua; Bitartekotza; Exegesia; Teolo- gia liberala; Teologia dialektikoa.

Protoebanjelioa

1. Jainkoaren *Mesiaren lehen agintzaria Biblian, Adan eta Ebari eginikoa, horien erorikoaren ondoren (Gn 3,15)

2. Jakue apostoluari okerrez egotziriko ebanjelio apokrifoaren titulu modernoa, non Jesusen haurtzarora kontatzen bait da.

Protopopea

Eliza Ortodoxoan zenbait apaizen gaine- tik dagoena, mendebaldirrean deana dagoen bezala.

Ik. Popea; Deana, 1.

Prozesioa

Latinetik dator hitz hori, eta "aurrera ibiltzea" esan gura du.

1. Erlijio-fenomenologian

Erlijiozko hizkeran erabiltzen da, leku jakin batetik bestera, bide jakinari jarraituz, egiten den erritozko ibilera ordenatua adierazteko. Erritozko ibilaldia, besterik gabe ere, esan ohi da batzutan.

Antzinakoan kultura eta erlijioetan ohizkoak ziren prozesioak. Horien jatorria eta zentzua magiazko asmoei lotuta daudela dirudi: hau da, prozesioaren bidez barruti jakin bat mugatzen bide zuten, indar sakratua hcrren barruan inguratzeke eta hor zabaltzeko, horrela gizakien bizileku edo barruti jakin batzu demoniozko eraginetatik babesteko. Ik. Demonioak; Magia.

Beste batzutan *gurtzapenezko zentzua eta helburua ditu prozesioak: e.b., egyptia- rren eta babiloniarren erlijioetan, jainkoen arteko elkar-ikuste mitikoak berritzeke zi- ren prozesioak.

Kristautasunaren historian IV. mendean hasi ziren prozesioak, batez ere Erroman, *martirien *erlikiak edo gorpua batetik bes- tera eramateko antolatzen zituzten ibilaldi gisa. Bostgarren mendeaz gero, berriz, otoitz-ibilaldiak hasten dira, herriaren in- guruan edo landan egiten zituztenak.

Kristau-prozesioak batzutan alorrentzat, soroentzat, etxearentzat Jainkoaren *bedei- kapena eskatzeko egin izan dituzte. Horieta- ko batzuk, *ermita, *jai edo urtesasoi jaki- nei lotuta daude edo izurrite (legorte, etab.) bereziren bat gertatzean egin izan dituzte.

Beste prozesio-modu batzuk daude, Ama Birjinaren, santuren baten edo Sakramentu txit santuaren ohorez egiten dituztenak, horien irudia kalera atereaz eta batetik bestera erabiliz. Oraindik ere honelakoetan ezagunenak eta zabalduenak gure artean hona- ko hauek dira: *Gorpuzti-egunekoa, *Erramu igandeko eta *Ostiral santukoa.

Eliza Katolikoak gorde ditu batez ere horrelako prozesioak. Baina liturgi barruan ebanjelio-liburua edo gurutzeta edo *ikonoa handikiro batzarrearen aurrean aurkezteko egiten dituztenak beste kristau-Elizetan ere aurkitzen dira.

Eliza barruan edo kanpoaldetik egiten den erritozko eta gurtzapenezko itzulinguru edo prozesioari elizingurua edo elizbira deritza.

Industri gizarte sekulartu honetan eta

hiri handietan eztabaidagarriagoak gertatzen ari dira kalez kale egiten diren prozesioen zentzu-helburuak. Batzuren ustez, Elizaren erromes izatea adierazteko eta jendaurrean fedea aitortzeko egokiak dira; besteren ustez, folklore-kutsu handiegia hartzen dute horrelako prozesioek, eta ez-kristauak fedetik urrunerazteko bidea ematen dute.

2. Kristau-teologian

Kristau-teologiak erabiltzen duen hitza, Hirutasuneko misterioa azaltzeko: horren arabera, II. Pertsona --Semea-- Aitak sortzen du eta Izpiritu Santua Aitagandik eta Semeagandik dator --procedere, processio--. Ortodoxoen arabera, Izpiritu Santua Aitagandik bakarrik dator, semearen bidez.

Prozesioa esaten da bereziki Izpiritu Santua Aitagandik eta Semeagandik bereizten duen atributua: biengandik etorria izatea. Semearena semetza den bezala, teologiaren arabera: sortua izatea. Ik. Hirutasun txit santua.

Paulo Agirrebaltzategi

Psikologia, erlijioaren

Ik. Erlijioaren psikologia.

Psikologismoa

Erlijio-alorrean, fenomeno guztiak psikologiazko azterketan agertzen direla uste izan eta heziera erlijiozkoa metodo psikologikoen menpe ipintzen duen joera da.

Ik. Naturalismoa; Erlijio-psikologia.

Publikanoa

Sin.: Zerga(la)ria

Zergalaria edo legarkaria adierazten du.

Ebanjelioan erabiltzen den hitza da, latinetik datorrena, Jesukristoren garaian juduen artean erromatarrentzat zergak bilzen zituen funtzionaria izendatzeko.

Sarritan juduen beraien artekoak izaten ziren; baina beren herritarrek ez zituzten aintzakotzat hartzen eta gorrotatu egiten zituzten, bekatarri agerikotzat eta arnegaritzat hartuz. Judu legezaleek ez zuten haiekin inolako harremanik nahi.

Horietako bi lagun behintzat agertzen dira ebanjelioan, Jesukristok onbideratu zituenak. Jesusen jokabidea, izan ere, hurbildu-zalea izan zen zergalariekiko, horiei ere Jainkoaren Erreinua aldarrikatu asmoz.

Ik. Jainkoaren Erreinua; Jesukristo.

Pûja

Tenpluko gurtza adierazten du *hinduismoan. Erlijioikizun horien arduradunari pujari deritza.

Pulpitua

Sin.: Sermoitegia

Tribuna txiki goratua, eskubandaz inguratua, *elizetan sermoilariak edo otoitz-zuzendariak erabiltzen zuena. Zurezkoa nahiz harrizkoa izan ohi da; eta gainean, txapel gisa, ahots-itzulkina du gehienetan. *Monastegi eta *komentu handietako jantokietan ere aurki daiteke pulpitua, otorduan handik irakurtzeko.

Erdi Aroan zabaldu zen pulpituaren erabilera; lehenago *anboia erabiltzen zuten. Gaur, berriro, eta batez ere bozgorailuak elizetan jarri dituztenetik, anboia erabiltzen dute, eta eliza berrietan ez da pulpiturik ikusten.

Purâna-k

"Antzinako kondairak" adierazten du sanskritoz. 18 dira; *hinduismoaren erlijiozko liburu garrantzizkoak, herri-budismoa definitu eta finkatu dutenak. *Bhakti mugimenduak sortu zituen bereziki.

Hinduismoaren garai klasikoko *mitologia (jainkoen eta santuen genealogia) eta kosmologia (munduaren sorrerak eta suntsitzeak, denboraren ulerkerak) erakusten dituzte Purana-ek.

Purgatorioa

Ik. Garbitokia.

Puritanismoa

Erlijiozko mugimendua, Ingalaterran Elisabeth I. ren garaian sortua eta Eliza anglikanoaren erabarrikuntza bizkorragoa eta errotikakoagoa eskatzen zuena. Erreginak ez zuen onartu erreforma aurrerago eramatea eta puritanoei eraso ere egin zien. Baina horiek indar handia izen zuten politikaren mailan eta gortean bertan ere bai.

Puritanismotik sortu ziren Eliza kongregazionalistak eta Eskoziako Eliza presbiterianoa, etab.

Puritanoen lana izan zen bereziki Ingalaterra Berria-ko kolonien eraikuntza, metropoliko erasoaldietatik ihesi. Han sortu